

## AMA BIRJIÑA ARANZAZUKOAREN LAGUNTASUNA



(NERE ADISKIDE ON MANUEL ANTONIO ANTIA,  
URNIETAKO ERRETORE JAUN BEGIRAUNGARRIARI)

Gerrara zoaz seme maite ta,  
Ez aztu ama tristiaz,  
Eraman zazu nere biotza,  
Bat egiñikan zuriaz;  
Badakit nola burrukarako  
Zoazan biotz aundiaz,  
Eskuda zazu jayoterra,  
Ill arteraño burniaz.

Zoazkit ondo, gerrara bañan,  
Gero poz eman ¿nork niri?  
Ill ote zera esnatuko naiz  
Sustoz goizetan beti ni;  
Tori semecho, muñ eiñda jantzi,  
Eskapularioch'ori,  
Goiz eta arrats errezatzeko  
*Ave Maria* berorri.

Aranzazuko Birjiña Amaren,  
Irudi ori kolkuan,  
Nik ere dakart, eta zaitu nau  
Beti premia orduan;

Zu ere berdiñ gorde zaitzala  
 Batalletako kanpuan,  
 Balen chistua baño besterik  
 Entzuten ez dan lekuan.

. . . . .

—Banator ama, banator ama,  
 Gudatik sano echera,  
 Pozaren pozaz, laztandu eta  
 Zerori besarkatzera;  
 Peleatu det garaitu arte,  
 Soldadu onak bezela,  
 Amar medalla dauzkan kapote  
 Zar oni galde bestela.

Eskapulari'onechek, ama,  
 Bizirik nauka munduan,  
 Beronegatik, echera nator,  
 Ikusten nazun moduan;  
 Bala batek beñ joagatikan,  
 Rete betean pechuan,  
 Irristatu zan, zergatik balen  
 Kontra Mariak alduan.

Irudi onek ein zidalako  
 Mirari pare gabia,  
 Beroni utsik zor diogu gaur,  
 Degun atsegiñ aundia;  
 Orduan amak, beso biakiñ  
 Baturik bere semia,  
 Ots egin zuen «bizi dedilla  
 Aranzazuko Maria».

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1893-ko urtean.

